



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

**2024KO UZTAILAREN 18AN
EGINDAKO OHIKO BILKURAKO AKTA**

BERTARATUAK

Udalek izendaturiko ordezkariak

DORLETA ELKOROBARRUTIA PAGOAGA

LEHENDAKARIA

Ordezkariek

Udalak

**IÑIGO RUIZ BARRON
XABIER IGARTUA LOIDI
MARKEL AZKARGORTA CID
AINHOA LETE ZABALETA
MARIA MORRAS AZPIAZU
KEPA URTEAGA
JASONE GIRALDO MENENDEZ
EDORTA ZUBIZARRETA ALEGRIA
ION ALBIZU GONZALEZ**

**OÑATI
OÑATI
BERGARA
BERGARA
ARRASATE
ARRASATE
ARRASATE
ESKORIATZA
ARETXABALETA**

Etorri ez direnak:

Idazkaria: Leire Ucin Soraluze

Debagoieneko Mankomunitatearen egoitzan, 2024ko uztailaren 18an eguadiako 12:30etan, Mankomunitatea osatzen duten udalek izendaturiko **hamar ordezkari** bildu dira

1.- Aurreko bilkurako akta onartzea

Inork ez du ezer esateko aurreko aktari buruz, beraz onartutzat ematen da.

2.- Dekretuen berri ematea.

Inork ez du ezer komentatzeko Dekretuei buruz.





3.- 2024ko Plantilla Organikoa eta Lanpostuen Zerrendari hasierako onarpena ematea.

2024KO PLANTILLA ORGANIKOA ETA LANPOSTUEN ZERRENDA ONARTZEA

Esp. Zbk: 122/2024

Ikusirik 2024ko Plantilla organikoa eta lanpostuen zerrenda onartzeko proposamena Ikusirik 122/2024 espedientea:

- Zerbitzuko txostena txostena
- Idazkariaren txostena
- Negoziazio mahaiko akta
- Kontuhartzailearen fiskalizazio txostena
- 2024ko Lanpostuen zerrenda eta Plantilla organikoa

PROPOSATZEN ZAIO OGASUN BATZORDEARI

LEHENA. 2024ko Lanpostuen Zerrenda eta Plantilla organikoa onartzea.

Arrasaten, sinadura elektronikoko datan.

Puntua bozkatzen dute eta hau da emaitza:

Alde (10): Xabier Igartua, Iñigo Ruiz, Markel Azkargorta, Ainhoa Lete, Maria Morras, Jasone Giraldo, Kepa Urteaga, Edorta Zubizarreta, Dorleta Elkorobarrutia, Ion Albizu.

Kontra: 0

Abstentzioa: 0

Ondorioz, honako hau **ONARTZEN DA:**

LEHENA. 2024ko Lanpostuen Zerrenda eta Plantilla Organikoa Gipuzkoako Aldizkari ofizialean argitaratzea 15 egun balioduneko epean alegazioak aurkezteko.

BIGARRENA. Alegaziorik ezean, erabakia behin betikotzat joko da, eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira 2024ko Lanpostuen Zerrenda eta Plantilla Organikoa.

4.- Zergak eta zuzenbide publikoaren bestelako sarrerak kudeatzeko, biltzeko eta ikuskatzeko ordenantza orokorraren hasierako onarpena.

OGASUN BATZORDEA

IRIZPEN PROPOSAMENA





DEBAGOIENENKO MANKOMUNITATEA

Ikusirik, Debagoieneko Mankomunitateak ZERGAK ETA ZUZENBIDE PUBLIKOAREN BESTALAKO SARRERAK KUDEATZEKO, BILTZEKO ETA IKUSKATZEKO ORDENANTZA OROKORRIK ez duela onartu gaurdaino.

Ikusirik, 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak 106.2 artikuluan aitortutako erregelamendu ahalmena:

*“2. Toki-erakundeek tributuen arloan duten erregelamendu-ahala beren tributua arautzen dituzten ordenantza fiskalen bidez eta **kudeatzeko, biltzeko eta ikuskatzeko ordenantza orokorren bidez gauzatuko da**. Toki-korporazioek interpretazio- eta argitze-xedapenak eman ahal izango dituzte.”*

Ikusirik, 2/2005 FORU ARAUAK, martxoaren 8koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorra arautzen duenak ere, erregelamendu ahalmena aitortzen diela toki entitateei 4. artikuluan jasotakoaren arabera:

“1. Zerga alorreko arauak garatzeko erregelamenduak emateko ahalmena Foru Aldundiari dagokio, Fiskalitaterako eta Finantzetarako Departamentuko foru diputatuak proposaturik, betiere toki entitateek udal zergen ordenantza fiskalei dagokienez dituzten ahalmenak baztertu gabe.”

Ikusirik Uztailaren 5eko 11/1989 Gipuzkoako Hazienda Lokalen FORU ARAUA Erregulatzailerak 7. artikuluan jasotakoa:

“1. Gipuzkoako udalerriek dagokie, foru arau honetan ezarritakoaren barruan, beren tributua ordainaraztea, kudeatzea, likidatzea, ikuskatzea eta biltzea, udal zergen foru arau erregulatzaileretan eta horiek garatzeko gainerako xedapenetan ezar daitezkeen berezitasunak eragotzi gabe, Zergen Foru Arau Orokorrean eta hori garatzeko emandako xedapenetan aurreikusitakoaren arabera.

2. Haien ordenantza fiskalen bitartez, Gipuzkoako udalerriek aurreko apartatuan aipatutako araudia egokitu ahal izango dute haietako bakoitzaren antolaketa eta funtzionamendu erregimenera. Dena den, egokitzapen hori ezin izango da araudi horren eduki materialaren aurka joan.”

Ikusirik Idazkariaren txostena

Ikusirik 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Prozedura Erkidea arautzen duenaren 133. artikuluan xedatzen dena betez, ordenantzaren testua Mankomunitateko web orrian argitaratu da eta ez da alegazio edo ekarpenik jaso.

Toki entitaei dagokie beren zuzenbide publikoko diru sarrerak kudeatu, likidatu, ikuskatu eta biltzea, eta, Zergei buruzko Foru Arau Orokorra eta berau garatzeko emandako xedapenak ordenantza fiskaletan berariaz ezartzen denean bakarrik aplikatu daitezke.

Ondorioz, beharrezkoa du Mankomunitateak erregelamendu ahala baliatu eta ZERGAK ETA ZUZENBIDE PUBLIKOAREN BESTALAKO SARRERAK KUDEATZEKO, BILTZEKO ETA IKUSKATZEKO ORDENANTZA OROKORRA onartzea, Mankomunitateak zehaztu edo garatu beharreko gaiak erregulatzeko eta Zergen Foru Arau Orokorra eta hura garatzeko erregelamenduak ordezko moduan aplikatzeko.

Hau dela eta honakoa

PROPOSATZEN DA

1- Debagoieneko Mankomunitateko ZERGAK ETA ZUZENBIDE PUBLIKOAREN BESTALAKO SARRERAK KUDEATZEKO, BILTZEKO ETA IKUSKATZEKO ORDENANTZA OROKORRA onartzea.

2- Behin-behineko erabakia Gipuzkoako Aldizkari ofizialean argitaratzea 30 egun balioduneko epean dagozkion alegazioak aurkezteko.

3- Alegaziorik egon ezean, erabakia behin betikotzat hartuko da, eta Ordenantzaren testua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

Puntua bozkatzen dute eta hau da emaitza:





DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

Alde (10): Xabier Igartua, Iñigo Ruiz, Markel Azkargorta, Ainhoa Lete, Maria Morras, Jasone Giraldo, Kepa Urteaga, Edorta Zubizarreta, Dorleta Elkorobarrutia, Ion Albizu.

Kontra: 0

Abstentzioa: 0

Hori horrela, aho batez ONARTZEN DA:

1- Debagoieneko Mankomunitateko ZERGAK ETA ZUZENBIDE PUBLIKOAREN BESTALAKO SARRERAK KUDEATZEKO, BILTZEKO ETA IKUSKATZEKO ORDENANTZA OROKORRA onartzea.

2- Behin-behineko erabakia Gipuzkoako Aldizkari ofizialean argitaratzea 30 egun balioduneko epean dagozkion alegazioak aurkezteko.

3- Alegaziorik egon ezean, erabakia behin betikotzat hartuko da, eta Ordenantzaren testua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

5.- Epeleko zabortegia behin betiko zigilatzeako proiektuaren idazketa eta obra zuzendaritza, segurtasun eta osasunaren koordinazioa eta ingurumen aholkularitza emateko kontratua dela eta, administrazio pleguak, plegu teknikoak eta gastua onartzea.

EPELEKO ZABORTEGIA BEHIN-BETIKO ZIGILATZEKO PROIEKTUAREN IDAZKETA eta OBRA ZUZENDARITZA, SEGURTASUN eta OSASUNAREN KOORDINAZIOA eta INGURUMEN AHOLKULARITZA EMATEKO KONTRATUA. HASERAKO TXOSTENA

Kontratuaren xedea

Hauek dira kontratu honen xedeak:

- 1. Epeleko zabortegikoa behin betiko zigilatzeako lanen xehetasun-proiektua idaztea.*
- 2. Hainbat obra osagarri egiteko eraikuntza-soluziorik egokienak diseinatzea.*
- 3. Aipatu obren zuzendaritza fakultatiboa.*
- 4. Segurtasun eta osasun arloko koordinazioa.*
- 5. Obren ingurumen-aholkularitzako zereginak.*
- 6. Obraren esleipen pleguen idazketan eta jasotako eskaintzen balorazio teknikoan laguntza eta aholkularitza eskaintzea Mankomunitateari.*

CPV kodea: 71242000-6. "Elaboración de proyectos y diseños, presupuestos"

Kontratuaren premia eta egokitasunaren justifikazioa

Debagoieneko Mankomunitateko Gobernu Juntak, 2024.03.21ko bilkuran, arrazoi teknikoetan oinarrituz, hondakin ez arriskutsuen Epele zabortegia behin-betiko zigilatu eta berriro ez irekitzea erabaki zuen. Epele zabortegiaren 2015.09.03ko Ingurumen Baimen Bateratuak xedatutakoari jarraituz, Mankomunitateak zabortegia zigilatzeako betebeharra du.

Baliabide-urritasuna

Mankomunitateak ez du baliabide eta gaitasun material eta pertsonalik Epele zabortegia behin-betiko zigilatzeako proiektua idatzi, obra zuzendaritza gauzatu eta segurtasun eta osasun koordinazioa egiteko.

Prozedura: Irekia / Tramitazioa: Ohikoa

Kontratuaren iraupena

Kontratu honetako obra-proiektua idazteko epea 2 hilabetekoa izango da. Gainontzeko lanen iraupena obra exekuzioak irauten duen bitartekoa izango da.





DEBAGOIENENKO MANKOMUNITATEA

Kaudimen tekniko edo profesionala

Azken bost urteetan hondakinen zabortegietan zigilatze eta iragazgaizte obretan egindako lanen zerrenda bat aurkeztu beharko da; non horien zenbatekoa, datak eta hartzaile publikoak edo pribatuak zehaztuko baitira. Egindako zerbitzuak organo eskudunak emandako edo bisatutako ziurtagirien bitartez egiaztatuko dira, hartzailea sektore publikoko erakunde bat bada, edo, hartzailea subjektu pribatu bat bada, horrek emandako ziurtagiriaren bitartez, edo, ziurtagiririk ezean, enpresaburuaren adierazpen baten bitartez. Hondakinen zabortegietan zigilatze eta iragazgaizte lanetan inolako esperientziarik egiaztatzen ez duten enpresen eskaintzak baztertu egingo dira.

Finantzaketa partidak

Kontratuaren zenbatekoaren finantzaketa egingo da honako kontu izendapenaren kontura: 2024ko aurrekontuko 3600.623.162.36.99 partida.

Aurkeztu beharreko dokumentazio teknikoa

Memoria Tekniko bat aurkeztu beharko da, gutxienez puntu hauek zehaztuaz:

- Kontratuaren xede diren lanen eskemaren garapena. Bertan azalduko dira lan metodologia, proiektuaren fase desberdinetan kontuan hartu beharreko alderdi tekniko gakoak eta obrak egiteko epe hurbilduaren kalkulu justifikatua.

- Kontratuaren xede diren lanen garapenaren xehetasun programa, non egin beharreko faseak eta lanak azalduko dituen barra diagrama bat jasoko baita (proiektuaren erredakzioa eta obren zuzendaritza osoa, Mankomunitatearentzako aholkularitza, segurtasunaren eta osasunaren koordinazioa eta ingurumen aholkularitza ere).

Obran bertan egin beharreko lanak eta bulegokoak zehaztu behar dira, eta barra diagrama batean kuantifikatu behar dira (astebeteko gutxieneko unitatea kontuan hartuz) erredakzio, zuzendaritza, ikuskapen, kontrol, laginen biltze eta bestelako lan batzuk egiteko kalkulatu diren egunak; gainera, adierazi beharko da zein puntu kronologikotan egingo diren lan desberdinak, lantaldeak nola osatuko diren eta fase bakoitzean pertsona bakoitzak zertan jardungo duen, kalkulatu diren dedikazio orduak xehatuz.

- Proposatzen diren taldekideen prestakuntza eta esperientziaren xehetasuna, euskararen ezagutza egiaztatzen duen agiriekin batera.

Kontratua egikaritzeko baldintza berezia SPKLren 202.1 artikuluan aurreikusiarekin bat etorriz, kontratu hau egikaritzeko honako egikaritze baldintza berezi hau exijituko da: Izaera sozialdun baldintza berezia:

Kontratu hau lan-arloan, Gizarte Segurantzaren eta laneko segurtasun eta osasunean aplikatu beharreko indarreak dauden lege xedapenak, arau xedapenak eta ohikoak betetzearen mende dago.

Lizitatzailerek adierazi egin beharko dute kontratuaren xede den jarduera egiten duten langileei ezarri beharreko hitzarmen kolektiboa zein izango den, kontratua esleitzuz gero. Era berean, Mankomunitateak kontratua egikaritzean langileei aplikatuko zaizkien laneko baldintzei buruz eskatutako informazio guztia emango du.

Esleipendunak, kontratua gauzatzen den bitartean, hitzarmen kolektibo aplikagarrian jasotako ordainsaria ordaindu beharko du, langileari dagokion kategorian profesionalaren arabera, eta ez da inolaz ere hori baino kopuru txikiagorik ordainduko.

Kontratua loteka ez banatzearen justifikazioa

Kontratu honen barruan egin beharreko lan guztiak esleipendun enpresa berak egitea beharrezkoa da, kontratua loteka banatu gabe. Kontratua loteka banatuko balitz (obra proiektuaren idazketa enpresa batek eginaz eta gainontzeko lanak beste enpresa batek eginaz), ziur aski proiektuaren interpretazio eta aplikazioan gaizki ulertu, zailtasun eta nahasmenak sortuko lirateke.

Kontratuaren gehieneko lizitazio prezioa eta balioaren zenbatespena

Kontratuaren gehieneko lizitazio prezioa eta balioa 27.000 € (BEZ kanpo)-koa da.

Proposatutako esleipen irizpideak. Justifikazioa

Kontratua esleitzeko oinarri izan behar duten eskaintzak baloratzeko irizpideak eta hauen ponderazioa honako hauek lirateke:

- Proposamen ekonomikoa: 50 ptu.





DEBAGOIENENKO MANKOMUNITATEA

- Balio judizio baten menpe dauden esleipen irizpide teknikoak (memoria teknikoa): 50 ptu:
1. Proiektua garatzeko proposatutako lan metodologia, proiektuaren fase ezberdinetan kontuan hartu beharreko alderdi tekniko gakoak eta obrak egiteko gutxi gora-beherako epearen kalkulu justifikatua: 20 ptu.

2. Lan programa: proiektuaren fase bakoitzerako egin beharreko lanak (proiektuaren erredakzioa eta obren zuzendaritza osoa, Mankomunitateari aholkularitza emateko lanak, segurtasunaren eta osasunaren koordinazioa eta ingurumen aholkularitza) eta horietarako kalkulatu den iraupena, gutxienez astebeteko denbora epea izango duen barra diagrama baten bidez: 20 ptu.

3. Proiektuaren fase bakoitzerako taldekide bakoitzarentzat proposatzen den dedikazioa, lan programan zehaztutako zereginak egiteko kalkulatu diren dedikazio orduak zehaztuta: 10ptu.

Lizitatuzaileek aurkeztutako prezioari eta balio judizioen menpe dauden irizpide teknikoei pisu bera eman zaie, prezioaz haratago, aurkeztutako proiektuaren kalitateak, metodologiak, lan programak eta lantaldearen dedikazioak garrantzi handia baitute. Memoria teknikoari dagokionean, pisu gehien proiektua garatzeko aurkeztutako lan metodologiari eta lan programari eskaini zaie, hurrenez hurren 20 puntu. Lan metodologiari dagokionean, proiektua osatzen duten fase bakoitzean kontuan hartu beharreko alderdi tekniko garrantzitsuenak eta obra exekutatzeko gutxi gora-behera aurreikusitako epearen iraupenaren justifikazioa hartuko dira kontuan.

Bestalde, lan programari dagokionez, proiektuaren fase bakoitzean egin beharreko lanak eta hauek garatzeko aurreikusten den iraupena zehaztea ezinbestekoa izango da. Azkenik, proiektuaren fase bakoitzerako taldekide bakoitzarentzat proposatzen den dedikazioari bigarren mailako garrantzia esleitu zaio, zehazki 10 puntu.

Arrasaten, sinadura elektronikoa adierazitako datan
Maddi Altuna Odriozola

Puntua bozkatzeko dute eta hau da emaitza:

Alde (10): Xabier Igartua, Iñigo Ruiz, Markel Azkargorta, Ainhoa Lete, Maria Morras, Jasone Giraldo, Kepa Urteaga, Edorta Zubizarreta, Dorleta Elkorobarrutia, Ion Albizu.

Kontra: 0

Abstentzia: 0

Beraz, aho batez ONARTZEN DA:

LEHENA.- Epeleko zaborteia behin-betiko zigilatzeke proiektuaren idazketa eta obra zuzendaritza, segurtasun eta osasunaren koordinazioa eta ingurumen aholkularitza emateko zerbitzua kontratatzeke espeditua

BIGARRENA.- Aipatu kontratua gauzatzeko, jarduteko eta esleipenerako erabiliko oinarri bezala erabiliko diren Baldintza Agiri Administrazioak eta Teknikoak

HIRUGARRENA.- Azaroaren 8ko 9/2017 Legearen, Sektore Publikoko Kontratuen Legeko 3.Xedapen Gehigarriaren 2. atalaren arabera, kontratazio hau aurretiazko tramitazio prozedura jarraituz izapidetu da, 2024ko kontu sail honen kontura: 3600.623.162.36.99. Nolanahi ere, kontratuak irauten duen urte guztietarako aurrekontuetan kreditua egotea bermatuko da.

LAUGARRENA.- Lizitazioa Mankomunitateko kontratatzaile profileen argitaratzea





6.- Eraikuntza eta eraispeneko hondakinak kudeatzeko zerbitzuari dagokion kontratazioa dela eta, 1. lotea (Harri hondakin hautatuak) Naparra Bergara, S.L.U enpresari esleitzea onartzea.

INGURUMEN BATZORDERAKO IRIZPEN PROPOSAMENA Eraikuntza eta eraispeneko hondakinak (EEH) kudeatzeko zerbitzu kontratua. Esleipen proposamena

Esp.zk: 82/2024

IKUSIRIK Kontratuaren gaia eta helburua: Eraikuntza eta eraispeneko hondakinak (EEH) kudeatzeko zerbitzu kontratua

Unitate sustatzailea: Ingurumen Zerbitzua.

Kontratu mota: Zerbitzu kontratua

Esleipena egiteko bidea eta modua: Prozedura irekia eta ohiko tramitazioa.

Baldintza orriak: Baldintza Agiri Administrazioak eta Teknikoak. **Araudi aplikagarria:** 1. Azaroaren 8ko 9/2017 Legea, Sektore Publikoko Kontratuen Legea eta urriaren 12ko 1098/2001 Erregelamendua. 2. Administrazio baldintza zehatzen orriak. **“A” gutun azalaren irekiera:** 2024.06.12an kontratazio mahaiak “A” gutun azala irekitzeko egindako bilkurako aktak honela dio:

Bi Loteetan banatzen da obra hondakinen kudeaketa zerbitzuari dagokion kontratazioa:

1. LOTEA: HARRI HONDAKIN HAUTATUAK

Naparra Bergara, S.L. enpresa aurkeztu da.

Egiaztatzen da I eranskina (Lizitazioaren baldintzak) eta DEUC dokumentua ondo daudela.

2. LOTEA: EEH EZ ARRISKUTSU NAHASTUAK

Naparra Bergara, S.L. enpresa aurkeztu da.

Egiaztatzen da I eranskina (Lizitazioaren baldintzak) eta DEUC dokumentua ondo daudela.

“B” gutun azalaren irekiera: 2024.06.18an kontratazio mahaiak “B” gutun azala irekitzeko egindako bilkurako aktak honela dio:





DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

Bi Loteetan banatzen da obra hondakinen kudeaketa zerbitzuari dagokion kontratazioa:

1. LOTEA: HARRI HONDAKIN HAUTATUAK

2. LOTEA: EEH EZ ARRISKUTSU NAHASTUAK

Mankomunitateko Ingurumen Zerbitzuko arduradunak balorazioa egin ondoren, ondorioztatzen du Naparra Bergara S.L.U enpresak pleguetan eskatutako baldintza minimoak betetzen dituela.

“C” gutun azalaren irekiera: 2024.06.20an kontratazio mahaiak “C” gutun azala irekitzeko egindako bilkurako aktak honela dio:

Eskaintza ekonomikoari dagokion artxiboa irekitzen dute, eta hona hemen Naparra Bergara, S.L.U enpresaren eskaintzak:

1. LOTEA: HARRI HONDAKIN HAUTATUAK

30,00 €/tonelada más 3,00 € correspondientes al 10% de IVA.

Total: 33 €/tonelada.

2. LOTEA: EEH EZ ARRISKUTSU NAHASTUAK

115,00 €/tonelada más 11,50 € correspondientes al 10% de IVA.

Total: 126,5 €/tonelada

2. lotearen oinarritzko lizitazio prezioa 40 Eur/tn da.

Beraz, 126,50 Eur/tn prezioa ezin da onartu.

Ondorioz proposatzen da:

- 1. lotea Naparra Bergara, S.L.U enpresari esleitzea.
- 2. lotea hutsik gelditzea.

Txostenak: - Jasotako eskaintzen balorazio teknikoari buruzko txostena (2024.06.19). - “A” gutun-azalaren irekiera – kontratazio mahaiaren akta. - “B” gutun-azalaren irekiera – kontratazio mahaiaren akta. - “C” gutun-azalaren irekiera – kontratazio mahaiaren akta.

Kontratua esleitzeko eskuduntza: Indarrean dagoen Debagoieneko Mankomunitateko Aurrekontu Exekuzio Arauaren 15.artikuluko 3. atalaren arabera, kontratu hau esleitzeko eskuduntza Mankomunitateko Gobernu Juntarena da.

Aipatu guztia ikusirik, ondorengo **PROPOSATZEN ZAI O INGURUMEN BATZORDEARI**

LEHENEA.- 1.LOTEA (Harri hondakin hautatuak) NAPARRA BERGARA S.L.U. enpresari esleitzea. Esleipen proposamen hau behin-behinekoa izango da, kontratua behin-betiko esleitzeko esleipendun enpresak aurkeztu beharreko dokumentazio eta ziurtagiriak ontzat eman bitartean, idazkari-kontu hartzailearen txostenak zehaztutakoaren arabera.





Puntua bozkatzen dute eta hau da emaitza:

Alde (10): Xabier Igartua, Iñigo Ruiz, Markel Azkargorta, Ainhoa Lete, Maria Morras, Jasone Giraldo, Kepa Urteaga, Edorta Zubizarreta, Dorleta Elkorobarrutia, Ion Albizu.

Kontra: 0

Abstentzioa: 0

Hori horrela, aho batez ONARTZEN DA:

LEHENA. 1. LOTEA (Harri Hondakin hautatuak) NAPARRA BERGARA, S.L.U enpresari esleitzea.

BIGARRENA. Interesdunari jakinaraztea.

7.- Eraikuntza eta eraispeneko hondakinak kudeatzeko zerbitzuari dagokion kontratua dela eta, 2. lotea (EEH ez arriskutsu nahastuak), hutsik deklaratzeko eta beste lizitazio prozedura bat martxan jartzea.

Puntua bozkatzen dute eta hau da emaitza:

Alde (10): Xabier Igartua, Iñigo Ruiz, Markel Azkargorta, Ainhoa Lete, Maria Morras, Jasone Giraldo, Kepa Urteaga, Edorta Zubizarreta, Dorleta Elkorobarrutia, Ion Albizu.

Kontra: 0

Abstentzioa: 0

Hori horrela aho batez ONARTZEN DA:

LEHENA.- (a) 2. LOTEA (EEH ez arriskutsu nahastuak) hutsik uztea eta lote honetara eskaintza aurkeztu duen enpresari jakinaraztea. (b) 2. LOTE honi dagokion EEH ez arriskutsu nahastuen kudeaketarako lizitazio prozedura berria martxan jartzeko erabakia hartzea.

8.- 20 l edukiontzien hornidurari dagokion bigarren lizitazioa hutsik deklaratzeko.

INGURUMEN BATZORDEAREN IRIZPEN PROPOSAMENA

Ekizle txiki eta handien etxeko hondakinen frakzioak biltzeko 20 litroko edukiontzien hornidura. 3.lizitazio prozedura martxan jartzeko proposamena

Esp.zk: 127/2024

IKUSIRIK





DEBAGOIENENKO MANKOMUNITATEA

Kontratuaren gaia eta helburua: Ekoizle txiki eta handien etxeko hondakinen frakzioak biltzeko 20lko edukiontzien hornidura.

Ekoizle txiki eta handiek sortutako etxeko hondakinen frakzio ezberdinak biltzeko hainbat edukieratako edukiontzien hornidura kontratuaren esleipena. 2024.04.08ko Gobernu Juntaren erabakiak:

2024.04.08ko Gobernu Juntak ondorengo erabakiak hartu zituen:

- 1.LOTEA (10l-ko ontzien hornidura) VERMICAN SOLUCIONES de COMPOSTAJE, S.L enpresari esleitzea.

- 2. LOTEA (20l-ko ontzien hornidura) hutsik uztea eta lote honetara eskaintza aurkeztu duten

enpresei jakinaraztea. □ 2. LOTE honi dagokion 20l-ko ontzien hornidurarako lizitazio prozedura berria martxan jartzeko erabakia hartzea.

- 3.LOTEA (1.100l-ko ontzien hornidura) SULO IBÉRICA S.A. enpresari esleitzea.

20l-ko ontzien (2.lotea) hornidurarako 2.lizitazioa. Baldintza agirien onarpena (2025.05.16):

2024.05.16ko Gobernu Juntak 20l-ko ontzien hornidurarako 2.lizitazioari zegokion

espedientea onartu eta Baldintza Agiri Administratiboak eta Teknikoak onartu zituen.

20l-ko ontzien hornidurarako 2.lizitazioa hutsik geratzea:

20l-ko ontzien hornidurarako 2.lizitazioa berriz ere hutsik geratu da, ez baita eskaintzarik jaso,

2024/06/19ko A gutun azalaren irekierarako kontratazio mahaiaren aktan jasotzen den moduan.

Ingurumen Batzordeak 2024.07.08ko ohiko bilkuran adostutakoa:

2024.07.08ko ohiko bilkuran Ingurumen Batzordeko batzordekideek, gai-zerrendako

4.puntuan, aho batez, 20l-ko ontzien hornidurarako 2.lizitazioa hutsik utzi eta 3.lizitazioa prozedura negoziatu bidez

martxan jartzea adostu dute.

Txostenak:

- A gutun azalaren irekierarako kontratazio mahaiaren akta.

- Idazkari-kontu hartzailearen lege txostena.

Aipatu guztia ikusirik, ondorengo

PROPOSATZEN ZAIO GOBERNU JUNTARI

LEHENA.- 20l-ko ontzien hornidurarako 2.lizitazioa hutsik uztea.

BIGARRENA.- 20l-ko ontzien hornidurarako 3. lizitazioa, prozedura negoziatu bidez, martxan jartzeko erabakia hartzea.

Puntua bozkatzen dute eta hau da emaitza:

Alde (10): Xabier Igartua, Iñigo Ruiz, Markel Azkargorta, Ainhoa Lete, Maria Morras, Jasone Giraldo, Kepa Urteaga, Edorta Zubizarreta, Dorleta Elkorobarrutia, Ion Albizu.

Kontra: 0

Abstentzioa: 0

Ondorioz, aho batez ONARTZEN DA:

LEHENA.- 20l-ko ontzien hornidurarako 2.lizitazioa hutsik uztea.

BIGARRENA.- 20l-ko ontzien hornidurarako 3. lizitazioa, prozedura negoziatu bidez, martxan jartzeko erabakia hartzea.





9.- 20I edukiontzien hornidurari dagokion hirugarren lizitazioa martxan jartzea publizitaterik gabeko prozedura adostuaren bitartez.

Puntua bozkatzen dute eta hau da emaitza:

Alde (10): Xabier Igartua, Iñigo Ruiz, Markel Azkargorta, Ainhoa Lete, Maria Morras, Jasone Giraldo, Kepa Urteaga, Edorta Zubizarreta, Dorleta Elkorobarrutia, Ion Albizu.

Kontra: 0

Abstentzioa: 0

LEHENA- 20I-ko ontzien hornidurarako 3. lizitazioa, prozedura negoziatu bidez, martxan jartzeko erabakia hartzea.

10.- Adison Alberto Toro Arce (Instalazio Elektrikoak) ekintzaileari Arrasateko EEZ-CIEko industria erako 6-IM modulua uztea onartzea.

Puntua bozkatzen dute eta hau da emaitza:

Alde (10): Xabier Igartua, Iñigo Ruiz, Markel Azkargorta, Ainhoa Lete, Maria Morras, Jasone Giraldo, Kepa Urteaga, Edorta Zubizarreta, Dorleta Elkorobarrutia, Ion Albizu.

Kontra: 0

Abstentzioa: 0

Beraz, aho batez onartzen da gai ordeneko 10. puntua.

11.- Silvia Correia Adriano eta Imanol Roman (IN A HOME Koop. Txikia) ekintzaileei Arrasateko industria erako 2-IM modulua uztea onartzea.

Puntua bozkatzen dute eta hemen emaitza:

Puntua bozkatzen dute eta hau da emaitza:

Alde (10): Xabier Igartua, Iñigo Ruiz, Markel Azkargorta, Ainhoa Lete, Maria Morras, Jasone Giraldo, Kepa Urteaga, Edorta Zubizarreta, Dorleta Elkorobarrutia, Ion Albizu.

Kontra: 0

Abstentzioa: 0

Beraz, aho batez onartzen da gai ordeneko 11. puntua.





12.- Uxue Ochoa (Psikologia zerbitzuak) ekintzaileari Arrasateko 1-ZM modulua uztea onartzea.

Puntua bozkatzen dute eta hau da emaitza:

Alde (10): Xabier Igartua, Iñigo Ruiz, Markel Azkargorta, Ainhoa Lete, Maria Morras, Jasone Giraldo, Kepa Urteaga, Edorta Zubizarreta, Dorleta Elkorobarrutia, Ion Albizu.

Kontra: 0

Abstentzioa: 0

Beraz, aho batez onartzen da gai ordeneko 12. puntua.

13.- Lide Arenaza (Hagoan Nutrizioa eta Osasuna) ekintzaileari Arrasateko 8-ZM moduluan baja onartzea. Yoel Eva (Psicoterapia) ekintzaileari Arrasateko EZ-CIEko zerbitzu erako 8-ZM modulua uztea onartzea.

Puntua bozkatzen dute eta hau da emaitza:

Alde (10): Xabier Igartua, Iñigo Ruiz, Markel Azkargorta, Ainhoa Lete, Maria Morras, Jasone Giraldo, Kepa Urteaga, Edorta Zubizarreta, Dorleta Elkorobarrutia, Ion Albizu.

Kontra: 0

Abstentzioa: 0

Beraz, aho batez onartzen da gai ordeneko 13. puntua.

14.- Oinarrizko Lanbide Heziketako eta eskolatzeko osagarriko programak garatzeko Debagoieneko Mankomunitateak Arzimendi Ikastolari Nafarroa Etorbideko 21. zenbakian dauden lokal, makina eta altzariak lagatzeko hitzarmena onartzea.

Puntua bozkatzen dute eta hau da emaitza:

Alde (10): Xabier Igartua, Iñigo Ruiz, Markel Azkargorta, Ainhoa Lete, Maria Morras, Jasone Giraldo, Kepa Urteaga, Edorta Zubizarreta, Dorleta Elkorobarrutia, Ion Albizu.

Kontra: 0

Abstentzioa: 0

Beraz, aho batez onartzen da gai ordeneko 14. puntua.





15.- Galdera eskaerak.

Ez dago.

Bilera bukatutzat ematen da 13:00etan, eta akta honetan jasotzen dira bertan hartutako erabakiak, dagozkion efektuetarako.

Arrasaten, 2024ko uztailaren 18an.

Lehendakaria

Idazkari-kontuhartzailea

